



GIZARTE EKIMENEN IKASTETXEEN GATAZKA: AURREIKUSPEN ONAK AKORDIO BATERAKO

Joan den ostiralean, irailaren 26an Gizarte Ekimeneko sindikatu eta patronalak bildu ginen udaldian izandako aldebikoen harremanen ondoren sortutako egoera eta 2103ko uztailatik aurrera daukagun gatazkari irtenbide adostua emateko aukerak aztertzeke helburuarekin.

Bilera honetan *Kristau Eskolak* berak sortu zuen gatazkaren ondorioz ikastetxeetan egon den egoera liskartsua kezagarria dela onartu zuen eta gatazkari behin betiko amaiera emateko sindikatu guztiekin adostasun puntuak bilatzera prest dagoela adierazi zuen. Balizko akordio hau ondorengo ardatzetan oinarrituko litzateke:

-KE-k EHAN-k emandako epaiaren aurkako ipinitako helegitea erretiratuko luke

-KE prest dago Gizarte Ekimeneko ikastetxeen hitzarmena berehala ezartzeko

-KE-k zailtasunak dituzten ikastetxeentzako deskuelgerako akordio bat negoziatuko luke.

-KE-k enplegua mantentzeko eta langileak birkokatzeke plan bat ere adosteko prest agertu da

Hala ere mahai gainean azaldu dira akordiorako oztupoak izan daitezkeen kontuak. Bestek beste:

-2009ko lan hitzarmenean ezarritako Lansariak 2016ko irailean berreskuratuko genituzke

-58 urte gorako lanaldi lektiboen murrizketa birnegoziatu nahi du KE-k.

-Ez dago proposamenik diskriminaturik dauden hainbat taldeen egoera hobetzeko (Hezkuntza Laguntzako Espezialistak edo Gasteizeko Diocesanak ikastetxeke langileak, kasu).

- Ez da zehazten 2103ko uztailaren 7tik eta lansari taulak berreskuratuko bitartean metaturiko zorra kitatzeko eperik

Bileran zehar, bai patronalak eta baita sindikatu guztiek ere akordioa lortzeko borondatea agertu genuen. Horretarako lanean aritzeko, proposamenak aztertzeke eta berriro biltzeko konpromisoa ere hartu zen guztien aldetik.

Lau haizetara zabaltzeko goizegi bada ere, STEE-EILASek modu positiboan baloratzen du KE-k izan duen jarrera aldaketa eta sindikatuen azken plataformaren zenbait aldarrikapen - helegitea kentzea, hitzarmenaren ultraktibitateari eustea, hitzarmena finantziario publikoari ez lotzea, deskuelge kasuetan derrigorrezko arbitrajari ez izatea, enpleguaren eta langileak birkokatzeke aldekoaren akordioa...-onartu izana.

Hala ere, balizko akordioa lortzeko adostu beharreko kontuen inguruan argilun nabari eta xehetasun eza ugari atzeman ditu STEE-EILAS-ek. Eta guzti horiek oso garrantzitsuak izango dira akordioa bere osotasunean baloratzeko orduan. Prest dago STEE-EILAS akordioak lortzeko, baina patronalen edo ikastetxeen hitzak baino zerbait gehiago behar dugu hainbat ataletan.

Oso goiz da inork dominak bularrean jartzeko, hitzarmena berreskuratzeke bidean urrutiago edo hurbilago egoteagatik. Asko dago egiteke, batez ere bidetik gauza gehiegi galdu nahi ez badugu. Gure ustez aurreko ikasturteetan sektoreke langileak, eta batik bat STEE-EILASeko kide edo lagunek, izandako jarrera tinko, borrokalari eta gureari heltzeko adierazi zuten adonari esker etorri da balizko lorpen hau. Sindikatuen artean izandako batasunak eta elkar erakutsitako leialtasunak ere lagundu dute KE-ren jarrera aldaketa bultzatzeko. Honek gatazkan zehar eraman dugun ibilbidea zuzena zela berresten du. .



ARABA: Eulogio Serdan, 5 01012 Gasteiz ☎ 945 14 11 04 ☎ 945 14 43 02 araba@stee-eilas.org

BIZKAIA: Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 Bilbao ☎ 944 10 02 98 ☎ 944 10 13 60 bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA: Baso-txiki, 30-34 (atzealdea) 20015 Donostia ☎ 943 46 60 00 ☎ 943 45 36 27 gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA: Joaquin Beunza 4-6 behea 31014 Iruñea ☎ 948 21 23 55 ☎ 948 22 97 90 nafarroa@stee-eilas.org